

Egitasmo bat, arren

Euskal herritarren nortasun kolektiboa gaur interrogazio zeinu bat da. Aniztasuna azpimarratu izaten dute *statu quo* horren defendatzaileek, oraingo epeltasunean eroso sentitzen direnek. Umorerik ez duen broma txar bat iruditzen zait hori. Ze ispilutan begiratu behar dugu euskaldunok geure burua ikusi eta ezagutzeko?

Demokrazia plantak egiten dituzten sistema politiko inposatzaile eta asimilatzaileen mende bizi gara, eta noraezean baino gehiago, kontrako norabidean goazen sentsazioa dugu sarritan. Ez gara gure buruaren jabe, eta gainera ez dugu ikusten, goazen bide horretatik, inoiz hori lortzeko modurik. “Gure esku dago”, esaten diogu elkarri, baina ez dago, gaur gaurkoz, hori sinesteko modurik. Erabakitzeke eskubidea aldarrikatzen dugu, baina zer erabaki daitekeen eta zeren inguruan egin dezakegun hautua ere ez dakigu.

Euskal Herriak egitasmo kolektiboa behar du, nazio-antolaketa demokratikoa burutzeko plangintza zehatz, argi eta egingarria. Ez da berez sortuko, ez da oraingo sistema politikoaren joko libretik sortuko, hain zuzen ere joko hori ez delako batere libre. Demokraziaren eta aniztasunaren ilusioaren azpitik, une honetako eremu politiko-instituzionalak egundoko kateak eta loturak ditu *statu quo* horrekiko. Ez da berez hori hausteko gauza, ez da norabidea erabat aldatzeko gai.

Nondik eta nola egin, orduan, euskal herritarrok behar dugun mugimendu garrantzitsu hori? Nola finkatu norabide berriaren iparra, nola lortu Euskal Herrian nazio demokratiko burujabea antolatzeke behar ditugun arkitektura eta baliabide egokiak?

Euskal Herria nazio demokratiko moduan antolatzea helburutzat hartzen duen egitasmo kolektiboa zehaztu behar dugu. Hau ez da berez sortuko gaur egun



Karmelo Landa

HISTORIALARIA
@karmelolanda

Euskal Herria nazio demokratiko moduan antolatzea helburutzat hartzen duen egitasmo kolektiboa zehaztu behar dugu. Hau ez da berez sortuko gaur egun Iruñean, Gasteizen edo Baionako parlamentu eta foroetan lanean diharduten alderdi politiko, instituzio edo erakundeetatik, horien guztien egitekoa indarrean dauden sistema politiko-egunerokotasuneko akordio taktikoetara lotuegi dagoelako

Iruñean, Gasteizen edo Baionako parlamentu eta foroetan lanean diharduten alderdi politiko, instituzio edo erakundeetatik, horien guztien egitekoa indarrean dauden sistema politiko-egunerokotasuneko akordio taktikoetara lotuegi dagoelako. Dimentsio estrategikoa duen egitasmoa behar dugu Euskal Herrian, eta horretarako orain indarrean dauden sistema politiko-instituzionalen muga eta lotura guztien gainetik begiratzeko ahalmena behar da.

Euskal Herria ezkerretik eraiki? Eskuinetik eraiki? Ez da egitasmo kolektibo hori alderdi batek edo besteak, ezkerreko indarrek edo eskuinekoek, klase sozial batek edo besteak bere kabuz soilik defini dezakeen zerbait. Gauza jakina da, edozein herritan bezala Euskal Herrian ere klase sozialen arteko gatazkak, edota genero, hizkuntza, adin edota beste hainbat desberdintasunen arteko lehiak bizirik eta maiz gori-gorian dirautela. Euskal Herrian nazio demokratikoa antolatzeak ekarri behar duena, hain zuzen ere, kondizio eta baldintza desberdin horiek guztiak, lehenik aintzat hartu eta ondoren modu demokratiko eta baikorrean konpontzeko antolaketa kolektibo adostua delako.

A priori bakarra jar daiteke, behar bada, egitasmo hori abiatzerako orduan, jarrera politiko ideologikoa ez dena, konstatazio hutsa dena: Euskal Herria badela, herria dela, eta horregatik, hain zuzen ere, herri honek bere buruari nazio antolaketa demokratikoa emateko bere baitako eskubidea duela, eta horretarako gaitasuna berezkua duela.

Gauzak horrela, eta egitasmo hori ezinbestekoa dugunez, norbaitek lan horretara deitu beharko gaitu, era, klase eta kondizio guztietako euskaldunok, Euskal Herria nazio demokratiko gisa pentsatu, diseinatu eta ondoren gauzatzea. Gure esku, guztion ereduz, guztion erabakiz. ■